DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola
Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

DONOSTIAKO PUIOKO ERRUGBI ETA FUTBOL ZELAIKO BELAR ARTIFIZIALA KENTZEKO ETA, ONDOREN, BELAR ARTIFIZIALEZKO SISTEMA BAT HORNITU ETA JARTZEKO KONTRATUKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

0. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Donostiako Puioko errugbi eta futbol zelaiko belar artifiziala kentzeko eta, ondoren, belar artifizialezko sistema bat hornitu eta jartzeko kontratua arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea.

1. AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

Puioko errugbi eta futbol zelaiak belar artifizialezko moketa bat du kirolerako azalera gisa, asfaltozko oinarri baten gainean jarria, kautxuzko eta hondarrezko betegarriekin. Gaur egun, instalatu zutenetik igarotako denbora dela eta, belarrezko moketa nabarmen hondatu dela ikusten da, eta baita kautxuzko betegarria ere. Horrenbestez, inbertsio bat egin behar da belar artifizialezko sistema osoa ordezkatzearren.

Instalatzen den belar sistema berriak aukera eman beharko du zelaian errugbian zein futbolean aritzeko. Horrenbestez, errugbirako homologatzeko beharrezko ezaugarriak eduki beharko ditu (World Rugbyren 22. arauak ezartzen duenaren arabera), eta FIFA QUALITY PRO ziurtagiria eduki beharko du.

Egungo belar artifizialezko eremuak 110,40 x 62,2 metro hartzen ditu, eta errugbi zelai bat, futbol 11ko zelai bat eta futbol 7ko zeharkako bi zelai dauzka markatuta. Era berean, trapezoide erako espazio bat ere badago, 285 m^2 ingurukoa, gaur egun entrenamendurako gune osagarri gisa erabiltzen dena; horretako belarra ere berritu egin behar da jarduketa honetan.

2. EGIN BEHARREKO LANEN IRISMENA

Kontratu hau gauzatzeko egin beharreko lanak honakoak dira:

- Belarretan dagoen kirol materiala eta ekipamendua (ateak, korner-banderatxoak, aulkiak…) kendu eta biltegiratzea, jarduketak egin ahal izatearren, ondoren atzera jarri ahal izateko.

- Egungo belar artifiziala jasotzea, kentzea eta hondakin horiek kudeatzea, baita belarretako kautxua eta hondarra bereiztea ere, bai zelai nagusian bai trapezoide formako gune osagarrian.

- 20 mm lodiko oinarri elastikoa hornitzea eta instalatzea (gune trapezoidal osagarrian ez da inolaz ere oinarri elastikorik jarriko).

- Belar artifizial berria hornitzea eta jartzea, behar bezala funtzionatzeko behar dituen hondar eta kautxuzko betegarriak barne.

- Joko eremu osoa markatzea (plano erantsiaren arabera), honakoak jasoz bertan:

• Errugbi zelai bateko joko-marrak markatzea, material berarekin, zuriz, 10 cm zabaleko lerroak eginez eta Espainiako Errugbi Federazioaren arauak betez, junturak poliuretano-kolaz kolatuta.

• Futbol 11ko zelai bateko joko-marrak markatzea, material berarekin, horiz, 10 cm zabaleko lerroak eginez eta Espainiako Futbol Federazioaren arauak betez, junturak poliuretano-kolaz kolatuta.

12344n II

• Futbol 7ko zelai biko joko-marrak markatzea, material berarekin, zeharka, urdinez, 10 cm zabaleko lerroak eginez eta Espainiako Futbol Federazioaren arauak betez, junturak poliuretano-kolaz kolatuta.

- Aurrez kendutako kirol material eta ekipamendua (ateak, korner-banderatxoak, aulkiak…) atzera jartzea.

- Beharrezko zelaiko probak egitea eta Espainiako Errugbi Federazioak errugbian jokatu ahal izateko ematen duen homologazioa lortzea.

3. MATERIALEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Ondoren ezartzen diren preskripzio teknikoak gutxieneko baldintzak dira. Beraz, horien azpitik geratzen den eskaintza atzera botako da eta, ondorioz, lizitazio honetatik kanpo geratuko da.

Lehenik, eta zelaian errugbian eta futbolean jokatuko denez, egiaztatu beharko da instalatzeko sistemak honako baldintza hau betetzen duela:

- WORLD RUGBY ziurtagiria: laborategi ziurtatu batek emandako ziurtagiria, egindako probak ontzat ematen dituena World Rugbyren 22. arauak ezartzen duenaren arabera.

Era berean, belar artifizialak honako baldintza hau bete behar du:

- FIFA QUALITY PRO ziurtagiria: FIFA, ENAC edo COFRACek egiaztatutako laborategi bateko homologazio ziurtagiria, FIFA Quality PROren parametroen araberakoa eta UNE15330 arauaren (bakar-bakarrik belar artifizialerako) arabera testatua.

Sistemaren batek ez baditu ziurtagiri horietako guztiak betetzen, baztertu egingo da eta enpresa, beraz, lizitazio prozesutik kanpo geratuko da.

Belar artifizialak ezaugarri tekniko hauek bete beharko ditu:

- Zuntzaren gutxieneko altuera 60 mm-koa izango da. (± % 5).

- Belarra osatzeko, gutxienez bi monofilamentu konbinatuko dira (ez da onartuko monofilamentu zuntzak eta fibrilatuak konbinatzen dituen belar sistemarik, edo monofilamentu mota bakarra duen belar sistemarik).

- Dtex: 15.000koa edo goragokoa.

- Monofilamentuen lodieren batura: 700 mikrakoa edo goragokoa.

Moteltze pada (oinarri elastikoa) 20 mm lodikoa izango da, eta tokian bertan egingo da, kautxuzko 0,7-2,0 mm-ko mortero pikortatuzko oinarri batez, osagai bakarreko poliuretano-erretxina batez itsatsita. Berokuntza-plakaz eta laser bidezko maila-kontrolaz hornitutako zabaltze makina baten bitartez zabalduko da.

Soropila betetzeko, silizezko harea (30 kg/m^2; granulometria: 0,4-0,8 mm) eta kautxu S.B.R. beltza (12 kg/m^2; granulometria: 1,0-2,5 mm) zabaldu eta sartuko dira, geruza-segida bat eginez, SMG SANDMATIC motako makina dosifikatzaile autopropultsatuaren bidez.

Soropila instalatu ondoren, entsegu mekanikoak egin beharko dira jokalekuan, soropilaren portaera WORLD RUGBYk ezarritako tarteen barruan dagoela egiaztatzeko. Soropil artifizialezko errugbi zelaietarako WORLD RUGBY homologazioa esleipendunaren kontura izango da, kontratuaren harreraren aurretik.


Soropila instalatu ondoren, zelaiko probak egin beharko dira berdegunean, World Rugby 22 erregulazioan (Errugbiko belar artifizialaren azalerak erabiltzearekin lotutako xedapenak) ezarritako prozeduren arabera, World Rugbyk egiaztatutako laborategi batek emandako 22. Araua betetzearen aldeko txostena lortzeko. Halaber, enpresa esleipendunak Espainiako Errugbi Federazioari bidali beharko dizkio errugbi zelaia homologatzeko federazio horrek eskatutako gainerako agiriak. Espainiako Errugbi Federazioak belar artifizialeko errugbi zelaietarako homologazioa lortzea esleipendunaren kontura izango da (homologazio tasa barne), kontratua jaso aurretik.

4. AURREKONTU DESKONPOSATUA

kontzeptua	**Neurketa**	**Unitateko prezioa**	**Aurrekontua**
Kirol ekipamentuaren desmontaia (porteriak, banderinak…) Eskulana 200 €/ud.	1 ud.	200 €/ud	200,00 €
Belarraren desmontaia, hondarra eta kautxoa ateraz Eskulana 0,40 €/m2 Makinaria 1,00 €/m2	7.150 m2	1,40 €/m2	10.010,00 €
Belar eta betegarrien karga eta garraioa zabortegiraino Eskulana 0,10 €/m2 Garraioa 0,20 €/m2 Zabortegiko kanona 0,60 €/m2	7.150 m2	0,90 €/m2	6.435,00 €
In situ egindako oinarri elastikoa eskuratu eta instalatzea, kautxuzko pikortatze-morteroz egina 0,7-2,0 mm, osagai bakarreko poliuretanozko erretxinarekin lotua, 20 mm-ko lodierakoa (ez eremu nagusiari erantsitako espazio trapezoidalean) Materiala 9,10 €/m2 Eskulana 1,25 €/m2 Makinaria 1,25 €/m2	6.865 m2	11,60 €/m2	79.634,00 €
Galdatutako eskakizun teknikoak betetzen dituen soropil sintetikoa hornitu eta instalatzea, 30 cm-ko zabalerako poliesterrezko banden gainean junturak zabaldu, kolatu, F-11ko luzetarako seinaleak jarri eta errugbia zuriz eta F-7rako zeharkako seinaleak (2 unitate) urdinez edo horiz. S.B.R beltzezko silize-harea eta kautxu-pikortatua banatzea eta elkarren segidako geruzetan sartzea, dosifikatzeko makina autopropultsatuaren bidez. Materiala 19,50 €/m2 Makinaria 1,25 €/m2 Eskulana 1,25 €/m2	7.150 m2	22,00 €/m2	157.300,00 €
Instalatutako sistemaren in situ probak egitea World Rugbyko 22. erregulazioan ezarritakoaren arabera, eta EGEFek homologazioa lortzeko izapideak egitea. Eskulana 1.871 €/ud. Homologazioa 400 €/ud.	1 ud.	2.271 €/ud	2.271,00 €
	MATERIALA DENERA ESKULANA DENERA MAKINARIA DENERA BESTEAK		201.896,50 € 23.164,75 € 26.098,75 € 4.690,00 €
GUZTIRA			
BEZ (%21)			
GUZTIRA (BEZ BARNE)			

Kirol Instalazioen Arduraduna  **Mikel Arteaga Mercader**	

I. ERANSKINA: ERRUGBI ETA FUTBOL ZELAIEN PLANOA. AZALERAK ETA JOKO-MARRAK


6865 m
SIN PAD AMORTIGUADOR
285 m
3,05
17,58
17,58
REPLANTEO CAMPOS DE FUTBOL 7
CAMPO DE PUIO
Estado actual
Escala 1:350
MARZO 2022